KOORDINAZIO BILERAREN AKTA

Koordinatzaileak: Guadalupe Lopetegui Semperena eta Nekane Zabaleta Ibáñez

Kurtsoa: 2026-2027

Data: 2026-09-24

Ordua: 16:00

Tokia: Miguel de Unamuno Institutuaren Paraninfoa

Bildutakoak: 60 gutxi gora behera

Online: presentziala izan zen

LANDUTAKO GAIAK

Irakasle agurgarri horiek:

Beste ezer baino lehen, gure esker ona agertu nahi genizueke irailaren 24an izan zen bilerara joateko ahalegina egin zenutenoi. Bilbora joan ezin izan zinetenentzat, eta gogoragarri gisa baita bertan izandakoentzat ere, ondoko lerroetan jaso ditugu orduan ukitu ziren gai garrantzitsuenak:

1. 2027ko azterketa 2026koaren berdina izango da, bai egituran bai galderen formulazioan ere; 2026koa eskuragarri duzue honako esteka honetan:
https://www.ehu.eus/documents/d/unibertsitaterako-sarbidea/latina-ii-azterketa-ohikoa-2026

2. A.1 galderako testuak oharrak eramango ditu, hobeto ulertu ahal izateko. Izen propiorik azalduz gero, oharretan emango dira.

3. Bileran ortografia eta kohesioagatik derrigor kendu beharreko gehienezko puntuari buruz hitz
egin zen; auzi honi dagozkion galderak-eta egin ondoren ordea, jakin dugu ez gaudela behartuta gehienezko puntu hori kentzera: beraz, azterketak zuzentzen dituztenek ez dute punturik kendu beharko ortografia eta kohesio-akatsengatik.

4. A.1 galderako testuan agertu ahalko diren egitura sintaktikoak akta honekin batera doakizuen
«Edukiak» dokumentuan daude jasota (**§ 3.1.g1-g2**).

5. 2027ko azterketan literaturako gaiei buruzko galderaren formulazioa 2026ko azterketakoaren berdina izango da (eta, hortaz, akta honetako 1. puntuan aipatu den ereduan dagoen bezalaxe).

6. Etimologiari dagokionez, kontuan izan bileran adostu zela, bilakaera fonetikoa azaldu beharko dela eta kalifikatu egingo dela. Honen harira, latinetik eratorritako euskal hitzen zerrendan agertzen dira ikasleek ikasi beharreko hitzak (**2. Gehigarria**).

7. 2027ko azterketan iaz erabili zen zerrenda erabiliko da latinismoei buruzko galderarako (B.2);
aipatu zerrenda hau «Edukiak» izeneko dokumentuaren akaberan dago (**«1. Gehigarria»**).

8. Aurten egin dugun moduan**,** hemendik aurrera bilera arratsaldez egingo da eta jarraituko du presentziala izaten. Halere, on line jarraitzeko aukera egongo da. Dena dela, bilera presentzialera bertaratzea hobesten da, gure bilerak gune aproposak direlako irakasleen arteko sareak eraiki eta indartzeko.

Beti bezala, zuen esanera gauzkazue posta elektronikoaren bidez eta atsegin handiz erantzungo diegu adierazi gogo dizkiguzuen zalantza edota iradokizunei.

Agur bero bat,

Guadalupe Lopetegui Semperena (guadalupe.lopetegi@ehu.eus)
Nekane Zabaleta Ibáñez (mn-zabaleta@euskadi.eus)

EDUKIAK
«LATINA II»
UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBA
2026-2027 IKASTURTEA
(2026ko urriaren 24a)

1. 2027ko ekain eta uztailean egingo den «Latina II» irakasgaiko proba 2026koaren berdina izango da, bai egituran bai formulazioan ere; 2026ko bi deialdietako azterketak eskuragarri daude esteka honetan:
https://www.ehu.eus/documents/d/unibertsitaterako-sarbidea/latina-ii-azterketa-ohikoa-2026

2. Etsaminak bi multzo izango ditu (A eta B) eta biak egin behar dira. A multzoaren barruan A.1
edo A.2 aukeratu behar da nahitaez, halako moduan non ezingo diren nahastu A.1eko eta A.2ko galderak. B multzoak hiru galdera izango ditu eta hirurak egin behar dira; haietako bakoitzak, berriz ere, zenbait aukera izango ditu, eta hauetatik bakar bat egin beharko da.

3. A multzoa («Itzulpena eta honi buruzko galderak»):

1. galdera: testu bat itzultzea hiztegiaren laguntzarekin:

a. testuak 30 bat hitz izango ditu;
b. A.1 aukerako testua Eutropioren obratik hartuko da (*Breviarium historiae Romanae*);
c. A.2 aukerako testua obra eta orrialde hauetatik hartuko da: H. H. Ørberg, *Lingua latina per se illustrata. Pars I: Familia romana*, 154-306 or. *Pars II: Roma aeterna*,7-208 or. Editorial Cultura Clásica:
https://www.culturaclasica.com/lingualatina/libros.htm
d. Behar izanez gero, testuak egokitu egingo dira egoera honetan eskatu daitekeen mailara.
e. Testuaren aurretik kontestualizazio labur bat emango da.
f. Beharrezkoa izango balitz, oharrak jarriko dira.

g-1. Testuan agertu daitezkeen eduki gramatikalak honako hauek dira:
— perpaus bakuna
— perpaus osagarriak (infinitibokoak, *ut/ne*-koak), adjektiboak eta Zirkunstantzialak
g-2. Testuan agertu ezin daitezkeen eduki gramatikalak honako hauek dira:
— gerundioa, gerundiboa, supinoa
— zehar-galderak

2. galdera: 1. galderako testutik ateratako esaldi baten analisi sintaktikoa egin behar da; honako formulazio hau izango du: «Egin ezazu ondoren datorren esaldiaren analisi sintaktikoa, hura osatzen duten sintagmak eta esaldiak identifikatuz: […]». Garrantzitsuena, esaldiak dituen bloke sintaktikoak bereizi eta aztertzea da. Horretarako terminologia tradizionala erabiliko da.

3. galdera: 1. galderako testutik ateratako 2 hitzen analisi morfologikoa egitea:

a. ulertu behar da galdera, hitzak testuan duen balioari dagokiola;

adibidea: testuan nominatibo singular neutroa den *hoc* bati buruz galdetzen bada, horixe erantzun beharko da; ez da zuzena izango, beraz, ablatibo singular neutroa dela erantzutea.

b. Beste ezer baino lehen, kategoria gramatikala zehaztuko da; substantiboa, adjektiboa edo izenordaina baldin bada, eman beharko diren datuak honako hauek dira: kasua, numeroa (baita generoa ere, adjektiboa edo izenordaina bada) eta hitzaren enunziazioa; adizkia baldin bada, pertsona, numeroa, denbora, modua, boza eta aditzaren enunziazioa;
adibidea: «*dominum*: akusatibo singularra, *dominus -i* hitzarena»; «*magnos*: akusatibo plural maskulinoa, *magnus -a -um* hitzarena»; «*amaverunt*: 3. Persona plurala, indikatiboko lehenaldi perfektoa, boz aktiboa, *amo -as -are -avi –atum* aditzarena».

4. B multzoa («Galdera teorikoak»):

1. galdera: 4 aukera izango ditu (2 gaztelaniazko hitzei buruz eta 2 euskarazko hitzei buruz) eta hauetatik bakar bat aukeratu behar da. Gaztelaniaren kasuan, enuntziatuan aipatzen diren bi latin hitz bakoitzeko, gutxienez bi adibide bat eman beharko dira: guztira lau hitz, bi ondare hitz eta beste bi kultismo. Bilakaera fonetikoa azaltzea ere kalifikatuko da: gutxienez aldaketa fonetiko bat eman beharko da adibide bakoitzeko (ez da kontuan hartuko, substantibo eta supinoen amaierako –m ren galera eta orainaldiko infinitiboen bukaerako –e ren galera soilik aipatzea). Emandako hitz bakoitzak, gehienez 0,10 balioko du eta bilakaera fonetikoak, 0,6.
Euskararen kasuan, enuntziatuan aipatzen diren bi latin hitz bakoitzeko, gutxienez, adibide bat eman beharko da. Gainera, bilakaera fonetikoaren azalpena kalifikatuko da. Gutxienez aldaketa fonetiko bat eman beharko da adibide bakoitzeko (ez da kontuan hartuko, substantibo eta supinoen amaierako –m ren galera eta orainaldiko infinitiboen bukaerako –e galera). Emandako adibide bakoitzak, gehienez, 0,25 balioko du eta bilakaera fonetikoak, 0,5. Kontuan izan, bilakaera fonetikoarekin batera, ikasi beharreko euskal hitzak, **2. eranskinean** jasota daudela.

Euskal hitzen bilakaera lantzeko, honako obra hau hartuko da erreferentzia gisa:

K. Mitxelena, «El elemento latino-románico en la lengua vasca», *Fontes linguae Vasconum*, 6 (1974), 183-210:
https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=1301657

2. galdera: lau esamolde izango ditu eta hauetatik bakar bat aukeratu behar da; ikasleek testu labur bat sortu beharko dute (20-50 hitzetakoa gutxi gorabehera): bertan hautatutako esamoldearen esanahia azaldu beharko dute eta adibide bat jarri. Adibidearen azalpena, 20-50 hitz multzo horretan, sartuta dago.

Adibidea: «Ad kalendas Graecas. Esamoldeak hitzez-hitz 'Greziar kalendetara' esan nahi du. Erromatarrentzat kalendak hil bakoitzaren lehenengo eguna ziren, baina greziarrek ez zuten kalendarik. Erabili ohi da adierazteko zerbait luzatu dela inoiz ez egiteko asmoarekin. Adibidez: "Bozketa *ad kalendas graecas* utzi dute"». Esamoldeen zerrenda dokumentu honen bukaeran dago, «1. Gehigarria» izeneko atalean.

3. galdera: bi aukera izango ditu eta horietatik bakar bat aukeratu beharko da:

a aukera: *Miles gloriosus* obraren pasarte bat eta honako galdera hau izango ditu:
«Kokatu ezazu pasarte hau obraren barruan (obra osoa irakurri duzula frogatzen saiatuz) eta eman ezazu zeure iritzia Plautoren obrak erakusten dituen balioei buruz (50-100 hitz gutxi gorabehera)».

b aukera: literaturari buruzko bi gai emango dira eta horietatik bakar bat aukeratu beharko da. Literatur-gaien zerrenda osoa honako hau da:

i. Erromatar antzerkia: Plauto eta Terenzio
ii. Latindar poesia: epika (Virgilio) eta lirika (Catulo, Horazio eta Ovidio).
iii. Prosa klasikoa: oratoria eta historiografía (Zizeron, Zesar, Salustio eta Livio).
iv. Emakume idazleak latindar literaturan

5. Gramatika erabiltzea: hiztegi batzuek ekarri ohi duten gramatika-eranskinaren erabilera onartuko da, aipatu gramatika hiztegiaren orrialdeetan inprimatua egon edo berezko koaderno gisa josita.

6. Nahi duenak bi hiztegi erabili ditzake batera: bat latina-gaztelania eta beste bat latina-euskara.

1. Gehigarria

Latinismoak (B.2 galdera) 2027rako

1. A posteriori / A priori.
2. Ad kalendas Graecas.
3. Alea iacta est.
4. Alma mater.
5. Alter ego
6. Ante meridiem (a.m.) / Post meridiem (p.m.).
7. Bis.
8. Captatio benevolentiae.
9. Carpe diem.
10. Casus belli.
11. Conditio sine qua non
12. Cum laude.
13. Curriculum vitae.
14. Deficit / Superavit.
15. Ex aequo.
16. Excusatio non petita, accusatio manifesta.
17. Grosso modo.
18. Honoris causa.
19. In albis.
20. In dubio pro reo.
21. In extremis.
22. In fraganti.
23. In medias res.
24. In memoriam.
25. In situ.
26. In vitro.
27. Ipso facto.
28. Iunior / Senior.
29. Lapsus linguae.
30. Manu militari.
31. Mare magnum.
32. Mea culpa.
33. Mens sana in corpore sano.
34. Modus operandi / Modus vivendi.
35. Motu proprio.

36. Numerus clausus.
37. Panem et circenses.
38. Peccata minuta.
39. Per capita.
40. Per se.
41. Persona non grata.
42. Placebo.
43. Post data / Post scriptum.
44. Post mortem.
45. Primum vivere, deinde philosophari.
46. Quid.
47. Quid pro quo.
48. Quorum.
49. Referendum.
50. Requiescat in pace (RIP).
51. Sine die.
52. Sui generis.
53. Statu quo.
54. Sub iudice.
55. Urbi et orbi.
56. Vade retro.
57. Viceversa.
58. Vis comica.
59. Vox populi.

2. Gehigarria

Latinetik eratorritako euskal hitzen zerrenda

LATINETIK HARTUTAKO EUSKAL MAILEGUETAN ANTZEMATEN DIREN ALDAKETA FONETIKO BATZUK

1. BOKALAK

Bokalismoari dagokionez mailegu zaharrenetan hauxe da azpimarkagarriena:

- bost tinbre bokalikoak bere horretan mantentzen dira, E eta O bokal azentudunek gaztelanian erakusten duten diptongaziorik jasaten ez dutelarik:

catillum> katilu
rotam> errota vs rueda
tempora> denbora vs **tempum*>tiempo
festam> festa, bezta vs fiesta
tentam> denda vs tienda
hortum> ortu vs huerto
scholam> eskola vs escuela

- Hitz amaieran U bokal itxia ondo kontserbatzen da, ireki gabe; mailegu berrietan, ordea, O aurki dezakegu:

librum> liburu vs libro
ficum> piku vs higo
villum> bilo
magistrum> maisu (kontsonante herskariaren galera eta talde kontsonantikoetan asimilazioa gertatu ondoren)
muccum> muki (disimilazioa) vs moco

- R urkariaren eraginez, E bokala ireki daiteke; S txistukariak ere tinbre aldaketak eragin ditzake ondoko bokalean:

Piper> pipar, piper
Bestiam> piztia
Missam> meza

- Latin klasikoak dituen hiru diptongoetatik (AE, OE, AU), euskarazko mailegu zaharretan AU mantendu egiten da; berrietan, monoptongazioa antzematen da. Bestalde, AE>E bilakatu zen ahozko latinan eta horrela hartu zuen euskarak:

Causam> gauza vs cosa
caeresiam> gerezia
caelum> zeru
Saeculum, -a> sekulu, -a

Hiatoetan, kontuan hartu behar da bi bokalak, kontaktuan badaude ere, silaba desberdinetakoak direla. Bilakaera normala ahozko latin berantiarrean zera da: hiatoan dauden bokaletako bat ixtea, horrela "yod" bat, hau da, I kontsonantikoa, sortzen delarik. Ondorioz, yod hori, ondoan daukan kontsonantearekin bat egin ondoren, palatalizatu egiten da:

Puteum> **putium*> putzu vs pozo
Plateam> **platiam*> plaza
Minacium, minacia> mehatxu vs amenaza
Martium (*mensis*)> martxo vs marzo
Balneum> *balnium*>bainu
Calcium, calcia> galtza
Calciata>galtzada
Castaneam> **castaniam*> gaztaina

Esan behar da baita, kontsonante sudurkarien galera dela eta, diptongo berriak sor daitezkela euskal maileguetan:

Lucanicam> lukainka
Granum> garau
Planum> lau

2. KONTSONANTEEN BILAKAERA

- Kontsonante herskari/oklusibo ahoskabeak mantendu egiten dira bokal artean mailegu zaharretan (gaztelanian aldiz, ozendu egiten dira):

  Pacem> bake vs paz

  Picem> bike vs pez

  Cupellam> kupela vs cubela

  Bucellam> okela

  Lacum> laku vs lago

  Spatham> ezpata vs espada

Anatem> ahate vs ánade

Saeculum, -a> sekulu, sekula vs siglo

Halere, L, N ondoren, herskariak ozendu egiten dira:

Gentem> jende
Tentam> denda
Altarem> aldare
Mantilem> maindire

Azpimarratu behar da C + E, I gaztelaniazko mailegutan (eta erromantzeetan) palatalizatu egiten dela; aldiz, euskarazko mailegu zaharrenetan ez: *bake, bike*. Baina mailegua berriagoa bada, hau da, kronologikoki berantiarragoa, palatalizazioa gertatzen da, erromantzez bezala:

Caelum> *celum*> zeru
Incensum> intsentsu
Cicer/ cicerem (maskulinoa latin berantiarrean)> txitxiro, txitxirio

- Herskari ahoskabeak, bestalde, ozendu egiten dira hitz hasieran mailegu zaharretan:

Castellum> gaztelu vs castillo
Causam> gauza vs cosa, causa
Castaneam> gaztaina vs castaña
Certum> gertu vs cierto
Cellam> gela vs celda
Camellum> gamelu
Caldariam>galdara
Certum>gertu
Cogitatum>gogaitu
Causatum>gozatu
Ceresiam> gerezi
Pilum> bilo
Parcatum> barkatu
Peccatum> bekatu
Peccatum>bekatu
Portam>borta (ez nahastu mailegu berriagoa den *portum*> portu hitzarekin)
Parcatum>barkatu
Pernam>Berna
Picem>bike
Tempora> denbora
Turrem> dorre vs torre
Tentam>denda

- Hitz hasieran F frikaria gal daiteke (eta H aurkitzen dugu arrasto bezala) edo zenbait hitzetan, ezpainkari bilakatzen da (normalean, P)

Fagum> pago
Ficum> piku, iku
Formam> horma

- Herskari ahostunak bokal artean frikari bilakatu eta mantendu egiten dira baina batzuetan gal daitezke:

Regem> errege
Reginam> erregina
Fidem> fede vs fe
Caveam> kabia
Habere> abere
Digitalem> di(gi)tare vs dedal
Magister> maizter
Magis> maiz

- L eta R urkarien trataera ere esanguratsua da. R kontsonantez hasten diren maileguek, bokal protetikoa hartzen dute euskaraz:

Rotam> errota vs rueda
Rosam> arrosa, larrosa vs rosa
Regem> errege vs reginam> erregina
Rationem> arrazoi vs razón
Romam> Erroma
Regulam> erregela

L kontsonantea, berriz, bokal artean dagoenean, R bilakatzen da euskaraz:

Gulam> gura
Angelum> aingeru
Voluntatem> borondate
Caelum> zeru
Milvum> miru (disimilazioa* eta gero)

- Sudurkariei dagokienez, N bokal artean galdu egiten da euskarazko maileguetan:

Honorem> ohore
Anatem> ahate
Coronam> koroa

Catenam> kate
Granum> garau
Caminum> kamio
Planum> lau
Arenam> area
Monetam>moeta, mueta
Dominikam>domeka
Honorem>ohore

Herskaria+urkaria (*muta cum liquida*) duten maileguetan, antzeman daiteke gehienetan talde hori "desegiten" dela bokal bat tartekatuz (anaptisia), ia beti tinbre berekoa:

Aprilem> apirila vs abril
Librum> liburu vs libro
Granum> garau vs grano
Crucem> gurutze
Gratiam> Garazi baina berantiarragoa grazia
Lucrum> lukuru
Astrum> asturu
Apricum> apiriko

Beste kasutan, kontsonanteetako bat galdu egiten da, talde kontsonantikoa sinplatuz:

Planum> lau
Placet> laket
Plumam> luma
Gloriam> Loria
Florem> lore
Ecclesiam> eliza, eleiza

- Talde kontsonantikoa S+herskaria denean, euskarazko maileguetan (gaztelaniazkoetan bezala), bokal protetikoa sortzen da:

Spatham> ezpata
Scholam> eskola
Speculum> izpilu
Spiritum> izpiritu

- Txistukarien taldea konplexua da euskaraz. Latinak S txistukaria baino ez dauka; euskarak, aldiz, sei txistukari ditu honela sailkatuak:

Apiko-albeolarrak: S frikaria eta TS afrikatua
Mingainkari-albeolarrak: Z frikaria eta TZ afrikatua
Txitxekariak: X frikaria eta TX afrikatua

Orokorrean, latinezko S euskarazko mailegu zaharrenetan Z bilakatzen da:

Causa> gauza
Sartaginem> zartagin
Saporem> zapore vs sabor
Sortem>zorte
Solum> zoru
Sigillum> zigilu
Sanctum>zaindu
Secalem> zekale, zekare
Sagmarium> zamari
Sabbatum>zapatu

Baina S hitz amaieran baldin badago, afrikatu egiten da: S > TZ

Corpus> gorputz
Fortis> bortitz
Martis (*dies*)> marti(t)zen
Lapis (lapidis gen.)> lapitz

Berdin gertatzen da, txistukaria R, L edo N ondoren badago:

Pensatum> pentsatu
Pulsatum> bultzatu
Personam> pertsona
Sensum> zentzu
Persicam> mertxika
(*in*)*sertatum*> txertatu, xertatu, xartatu

Kontsonante bikoiztuak, sinplatu egiten dira eta ez dute kontsonante bakunen bilakaera jasaten (vLLv>L, ez da R bilakatzen L bakunaren moduan)

Sellam> zela
Castellum>gaztelu
Cattum> katu
Sigillum> zigilu
Ballenam>balea
Cepullam>tipula

ACTA DE REUNIÓN DE COORDINACIÓN

Coordinadores/as: Guadalupe Lopetegui Semperena y Nekane Zabaleta Ibáñez

Curso: 2026-2027

Fecha: 24-09-2026

Hora: 16:00

Lugar: Paraninfo del Instituto de Enseñanza Media Miguel de Unamuno

Asistentes: 60 personas aproximadamente

Online: presencial

TEMAS TRATADOS

Estimadas profesoras, estimados profesores:

En primer lugar nos gustaría expresar nuestro agradecimiento a quienes hicisteis el esfuerzo de asistir a la reunión del pasado día 24 de septiembre. Para quienes no pudisteis desplazaros a Bilbao, y también a modo de recordatorio para quienes estuvisteis presentes, os indicamos a continuación lo esencial de lo que allí se trató:

1. El examen del año 2027 será idéntico en su estructura y formulación al realizado en 2026, disponible en la siguiente dirección:

https://www.ehu.eus/documents/d/unibertsitaterako-sarbidea/latin-ii-examen-ord-2026

2. Los textos de A.1 y A.2 irán precedidos de una contextualización y tendrán anotaciones para facilitar la comprensión de los mismos. Además, si hubiera nombres propios, se citarán en las notas.

3. En reuniones anteriores se había hablado de la obligación de detraer hasta 1 punto en el conjunto del examen por errores de ortografía y cohesión; sin embargo, tras realizar las consultas oportunas, hemos sabido que no existe tal exigencia: por tanto, quienes corrijan los exámenes no tendrán que puntuar negativamente los errores de ortografía o cohesión.

4. Las estructuras sintácticas que podrán aparecer en los textos A.1 y A.2 se especifican en el documento «Contenidos» adjunto a esta acta (**§ 3.1.g1-g2**).

5. La formulación de la pregunta B.3.b (temas de literatura) será igual a la de 2026 la (y, por tanto, tal y como está en el modelo señalado en el punto 1 de esta acta).

6.En cuanto al apartado relativo a la etimología, en la reunión se acordó que sería necesario ofrecer la evolución fonética y que dicha explicación se calificaría. En este sentido, cabe señalar que al final del documento "Contenidos" se incluye la lista de términos vascos derivados del latín que se deberán trabajar (**Apéndice 2).**

6. En el examen de 2027 se utilizará la misma lista de latinismos que en 2026 para la pregunta correspondiente (B.2); dicha lista se encuentra al final del documento «Contenidos» (**«Apéndice 1»**).

7. En adelante, nuestra reunión anual seguirá siendo presencial y se realizará por la tarde. Además, se ofrecerá la opción de seguir la reunión on line. Con todo, valoramos especialmente la asistencia presencial ya que estas reuniones son las que permiten establecer redes de contacto entre los profesores.

Como siempre, estamos a vuestra disposición a través del correo electrónico y atenderemos con mucho gusto las dudas o sugerencias que queráis comunicarnos.

Un cordial saludo,

Guadalupe Lopetegui Semperena (guadalupe.lopetegi@ehu.eus)
Nekane Zabaleta Ibáñez (mn-zabaleta@euskadi.eus)

CONTENIDOS
«LATÍN II»
PRUEBA DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD
CURSO 2026-2027

1. La prueba de «Latín II» que se celebrará en junio y julio de 2027 tendrá la misma estructura y formulación que la realizada en 2026; los exámenes de las dos convocatorias de 2026 están disponibles en el siguiente enlace:
https://www.ehu.eus/documents/d/unibertsitaterako-sarbidea/latin-ii-examen-ord-2026

2. La prueba consta de dos bloques (A y B) y deben realizarse ambos. Dentro del bloque A debe optarse o bien por A.1 o bien por A.2, de tal modo que no podrán mezclarse preguntas de A.1 y de A.2. Dentro del bloque B habrá tres preguntas y deberán realizarse las tres; cada una de ellas, a su vez, ofrecerá varias opciones, de las que deberá elegirse una sola.

3. Bloque A («Traducción y preguntas al respecto»):

1ª pregunta: consistirá en la traducción de un texto con la ayuda del diccionario:

a. El texto tendrá una extensión aproximada de 30 palabras.
b. El texto de la opción A.1 se extraerá de la obra de Eutropio (*Breviarium historiae Romanae*).
c. El texto de la opción A.2 se extraerá de la obra y páginas que se indican a continuación: H. H. Ørberg, *Lingua latina per se illustrata. Pars I: Familia romana*, pp. 154-306. *Pars II: Roma aeterna*, pp. 7-208. Editorial Cultura Clásica:
https://www.culturaclasica.com/lingualatina/libros.htm
d. Si fuera necesario, los textos se adaptarán al nivel exigible para la ocasión.
e. Los textos irán precedidos de una breve contextualización.
f. Los textos podrán ir acompañados de notas aclaratorias.

g-1. Los contenidos gramaticales que pueden aparecer en el texto son los siguientes:

— oración simple
— oraciones subordinadas completivas (de infinitivo, de *ut/ne*), adjetivas y circunstanciales

g-2. Los contenidos gramaticales que no aparecerán en el texto son los siguientes:

— gerundio, gerundivo, supino
— oraciones interrogativas indirectas

2ª pregunta: consistirá en el análisis sintáctico de una parte del texto de la pregunta 1; estará formulada con este enunciado: «Analiza sintácticamente la frase siguiente, identificando los sintagmas y las oraciones que la integran: […]».Lo más importante es analizar y precisar los bloques sintácticos. Para ello, se utilizará la terminología tradicional.

3ª pregunta: consistirá en el análisis morfológico de 2 palabras que aparecen en el texto de la pregunta 1:

a. se entiende que la pregunta está referida al valor de la palabra en el texto en el que aparece;

ejemplo: si se pregunta sobre un *hoc* que en el texto es un nominativo singular neutro, esta debe ser la respuesta; se considerará erróneo, por tanto, si se responde que es un ablativo singular neutro.

b. En primer lugar se señalará la categoría gramatical; si se trata de un sustantivo, adjetivo o pronombre, habrá que señalar caso, número (también género, si es adjetivo o pronombre) y la enunciación del término; si se trata de una forma verbal, persona, número, tiempo, modo, voz y la enunciación del verbo;

ejemplo: «*dominum*: acusativo singular de *dominus -i*»; «*magnos*: acusativo plural masculino de *magnus -a -um*»; «*amaverunt*: 3ª persona del plural del pretérito perfecto de indicativo de la voz activa del verbo *amo -as -are -avi -atum*».

4. Bloque B («Preguntas teóricas»):

1ª pregunta: constará de 4 opciones (2 sobre léxico castellano y 2 sobre léxico vasco) de las que deberá elegirse solo una. En el caso del castellano, deberá darse al menos un ejemplo para cada uno de los dos términos elegidos: en total, cuatro términos, dos patrimoniales y dos cultismos. Se calificará la exposición de la evolución fonética. Habrá que citar como mínimo un cambio fonético relevante (exceptuando la pérdida de –m final en sustantivos y supinos, y la pérdida de –e final en el infinitivo de presente). Cada una de las palabras citadas se calificará 0,10 y si se ofrece la evolución fonética, se añadirá 0,6.

En el caso del euskera, deberá darse al menos un ejemplo para cada uno de los dos términos elegidos. Se calificará la exposición de la evolución fonética. Habrá que citar como mínimo un cambio fonético relevante (exceptuando la pérdida de –m final en sustantivos y supinos, y la pérdida de –e final en el infinitivo de presente). Cada una de las palabras citadas se calificará 0,25 como máximo y si se ofrece la evolución fonética, se añadirá 0,5. Para preparar las palabras del euskera derivadas del latín, se ofrece un listado clasificado por fenómenos fonéticos al final de este documento (**Apéndice 2**)

En relación con el léxico vasco, se podrá consultar como referencia la siguiente obra:

K. Mitxelena, «El elemento latino-románico en la lengua vasca», *Fontes linguae Vasconum*, 6,1974, 183-210
https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=1301657

2ª pregunta: constará de 4 locuciones de las que deberá elegirse solo una; se deberá redactar un breve texto (de entre 20 y 50 palabras aproximadamente): en este se explicará el significado de la locución elegida y se pondrá un ejemplo de su uso. La explicación del ejemplo estará comprendida en esa extensión de 20 a 50 palabras.

Ejemplo: «Ad kalendas Graecas. La locución significa literalmente 'Para las calendas griegas'. Las calendas eran el primer día del mes para los romanos, pero los griegos no tenían calendas. Se utiliza para indicar que algo se pospone con intención de no realizarlo nunca. Ejemplo: "Han pospuesto la votación *ad kalendas graecas*».
La lista de las locuciones puede verse al final de este documento, en la sección titulada «Apéndice 1».

3ª pregunta: constará de 2 opciones de las que deberá elegirse solo una:

a. la opción *a* contendrá un pasaje del *Miles gloriosus* y la siguiente formulación: «Sitúa el pasaje en el conjunto de la obra (tratando de demostrar que la has leído en su totalidad) y da tu opinión sobre los valores que muestra la obra de Plauto (50-100 palabras aproximadamente)».
b. En la opción *b* se enunciarán 2 temas de literatura, de los que deberá elegirse solo uno. La lista completa de los temas de literatura es la siguiente:

i. El teatro romano: Plauto y Terencio
ii. La poesía latina: épica (Virgilio) y lírica (Catulo, Horacio y Ovidio)
iii. La prosa clásica: oratoria e historiografía (Cicerón, Salustio, César y Tito Livio).
iv. Mujeres escritoras en la literatura latina

5. Uso de la gramática: se permitirá el uso del anexo gramatical que se adjunta en algunos diccionarios, ya sea que dicho anexo esté en las propias páginas del diccionario o que se trate

de un cuadernillo independiente.

6. Se permitirá el uso simultáneo de dos diccionarios: uno latino-español y otro latín-euskara

Apéndice 1
Latinismos (pregunta B.2) 2027

1. A posteriori / A priori.
2. Ad hoc.
3. Ad kalendas Graecas.
4. Alea iacta est.
5. Alma mater.
6. Alter ego
7. Ante meridiem (a.m.) / Post meridiem (p.m.).
8. Bis.
9. Captatio benevolentiae.
10. Carpe diem.
11. Casus belli.
12. Conditio sine qua non
13. Cum laude.
14. Curriculum vitae.
15. Deficit / Superavit.
16. Ex aequo.
17. Excusatio non petita, accusatio manifesta.
18. Grosso modo.
19. Honoris causa.
20. In albis.
21. In dubio pro reo.
22. In extremis.
23. In fraganti.
24. In medias res.
25. In memoriam.
26. In situ.
27. In vitro.
28. Ipso facto.
29. Iunior / Senior.
30. Lapsus linguae.
31. Manu militari.
32. Mare magnum.
33. Mea culpa.
34. Mens sana in corpore sano.
35. Modus operandi / Modus vivendi.

36. Motu proprio.
37. Numerus clausus.
38. Panem et circenses.
39. Peccata minuta.
40. Per capita.
41. Per se.
42. Persona non grata.
43. Placebo.
44. Post data / Post scriptum.
45. Post mortem.
46. Primum vivere, deinde philosophari.
47. Quid.
48. Quid pro quo.
49. Quorum.
50. Referendum.
51. Requiescat in pace (RIP).
52. Sine die.
53. Sui generis.
54. Statu quo.
55. Sub iudice.
56. Urbi et orbi.
57. Vade retro.
58. Viceversa.
59. Vis comica.
60. Vox populi.

Apéndice 2

Lista de términos vascos derivados del latín

LATINETIK HARTUTAKO EUSKAL MAILEGUETAN ANTZEMATEN DIREN ALDAKETA FONETIKO BATZUK

1. BOKALAK

Bokalismoari dagokionez mailegu zaharrenetan hauxe da azpimarkagarriena:

- bost tinbre bokalikoak bere horretan mantentzen dira, E eta O bokal azentudunek gaztelanian erakusten duten diptongaziorik jasaten ez dutelarik:

catillum> katilu
rotam> errota vs rueda
tempora> denbora vs **tempum*>tiempo
festam> festa, bezta vs fiesta
tentam> denda vs tienda
hortum> ortu vs huerto
scholam> eskola vs escuela

- Hitz amaieran U bokal itxia ondo kontserbatzen da, ireki gabe; mailegu berrietan, ordea, O aurki dezakegu:

librum> liburu vs libro
ficum> piku vs higo
villum> bilo
magistrum> maisu (kontsonante herskariaren galera eta talde kontsonantikoetan asimilazioa gertatu ondoren)
muccum> muki (disimilazioa) vs moco

- R urkariaren eraginez, E bokala ireki daiteke; S txistukariak ere tinbre aldaketak eragin ditzake ondoko bokalean:

Piper> pipar, piper

Bestiam> piztia
Missam> meza

- Latin klasikoak dituen hiru diptongoetatik (AE, OE, AU), euskarazko mailegu zaharretan AU mantendu egiten da; berrietan, monoptongazioa antzematen da. Bestalde, AE>E bilakatu zen ahozko latinan eta horrela hartu zuen euskarak:

Causam> gauza vs cosa
caeresiam> gerezia
caelum> zeru
Saeculum, -a> sekulu, -a

Hiatoetan, kontuan hartu behar da bi bokalak, kontaktuan badaude ere, silaba desberdinetakoak direla. Bilakaera normala ahozko latin berantiarrean zera da: hiatoan dauden bokaletako bat ixtea, horrela "yod" bat, hau da, I kontsonantikoa, sortzen delarik. Ondorioz, yod hori, ondoan daukan kontsonantearekin bat egin ondoren, palatalizatu egiten da:

Puteum> **putium*> putzu vs pozo
Plateam> **platiam*> plaza
Minacium, minacia> mehatxu vs amenaza
Martium (*mensis*)> martxo vs marzo
Balneum> *balnium*>bainu
Calcium, calcia> galtza
Calciata>galtzada
Castaneam> **castaniam*> gaztaina

Esan behar da baita, kontsonante sudurkarien galera dela eta, diptongo berriak sor daitezkela euskal maileguetan:

Lucanicam> lukainka
Granum> garau
Planum> lau

60. KONTSONANTEEN BILAKAERA

- Kontsonante herskari/oklusibo ahoskabeak mantendu egiten dira bokal artean mailegu zaharretan:

Pacem> bake vs paz

Picem> bike vs pez

Cupellam> kupela vs cubela

Bucellam> okela

Lacum> laku vs lago

Spatham> ezpata vs espada

Anatem> ahate vs ánade

Saeculum, -a> sekulu, sekula vs siglo

Halere, L, N ondoren, herskariak ozendu egiten dira:

Gentem> jende
Tentam> denda
Altarem> aldare
Mantilem> maindire

Azpimarratu behar da C + E, I gaztelaniazko mailegutan (eta erromantzeetan) palatalizatu egiten dela; aldiz, euskarazko mailegu zaharrenetan ez: *bake, bike*. Baina mailegua berriagoa bada, hau da, kronologikoki berantiarragoa, palatalizazioa gertatzen da, erromantzez bezala:

Caelum> *celum*> zeru
Incensum> intsentsu
Cicer/ cicerem (maskulinoa latin berantiarrean)> txitxiro, txitxirio

- Herskari ahoskabeak, bestalde, ozendu egiten dira hitz hasieran mailegu zaharretan:

Castellum> gaztelu vs castillo
Causam> gauza vs cosa, causa
Castaneam> gaztaina vs castaña
Certum> gertu vs cierto
Cellam> gela vs celda
Camellum> gamelu
Caldariam>galdara
Certum>gertu
Cogitatum>gogaitu
Causatum>gozatu
Ceresiam> gerezi
Pilum> bilo
Parcatum> barkatu
Peccatum> bekatu
Peccatum>bekatu
Portam>borta (ez nahastu mailegu berriagoa den *portum*> portu hitzarekin)
Parcatum>barkatu
Pernam>Berna
Picem>bike

Tempora> denbora
Turrem> dorre vs torre
Tentam>denda

- Hitz hasieran F frikaria gal daiteke (eta H aurkitzen dugu arrasto bezala) edo zenbait hitzetan, ezpainkari bilakatzen da (normalean, P)

Fagum> pago
Ficum> piku, iku
Formam> horma

- Herskari ahostunak bokal artean frikari bilakatu eta mantendu egiten dira baina batzuetan gal daitezke:

Regem> errege
Reginam> erregina
Fidem> fede vs fe
Caveam> kabia
Habere> abere
Digitalem> di(gi)tare vs dedal
Magister> maizter
Magis> maiz

- L eta R urkarien trataera ere esanguratsua da. R kontsonantez hasten diren maileguek, bokal protetikoa hartzen dute euskaraz:

Rotam> errota vs rueda
Rosam> arrosa, larrosa vs rosa
Regem> errege vs reginam> erregina
Rationem> arrazoi vs razón
Romam> Erroma
Regulam> erregela

L kontsonantea, berriz, bokal artean dagoenean, R bilakatzen da euskaraz:

Gulam> gura
Angelum> aingeru
Voluntatem> borondate
Caelum> zeru
Milvum> miru (disimilazioa* eta gero)

- Sudurkariei dagokienez, N bokal artean galdu egiten da euskarazko maileguetan:

Honorem> ohore
Anatem> ahate
Coronam> koroa
Catenam> kate
Granum> garau
Caminum> kamio
Planum> lau
Arenam> area
Monetam>moeta, mueta
Dominikam>domeka
Honorem>ohore

Herskaria+urkaria (*muta cum liquida*) duten maileguetan, antzeman daiteke gehienetan talde hori "desegiten" dela bokal bat tartekatuz (anaptisia), ia beti tinbre berekoa:

Aprilem> apirila vs abril
Librum> liburu vs libro
Granum> garau vs grano
Crucem> gurutze
Gratiam> Garazi baina berantiarragoa grazia
Lucrum> lukuru
Astrum> asturu
Apricum> apiriko

Beste kasutan, kontsonanteetako bat galdu egiten da, talde kontsonantikoa sinplatuz:

Planum> lau
Placet> laket
Plumam> luma
Gloriam> Loria
Florem> lore
Ecclesiam> eliza, eleiza

- Talde kontsonantikoa S+herskaria denean, euskarazko maileguetan (gaztelaniazkoetan bezala), bokal protetikoa sortzen da:

Spatham> ezpata
Scholam> eskola
Speculum> izpilu
Spiritum> izpiritu

- Txistukarien taldea konplexua da euskaraz. Latinak S txistukaria baino ez dauka; euskarak, aldiz, sei txistukari ditu honela sailkatuak:

Apiko-albeolarrak: S frikaria eta TS afrikatua
Mingainkari-albeolarrak: Z frikaria eta TZ afrikatua
Txitxekariak: X frikaria eta TX afrikatua

Orokorrean, latinezko S euskarazko mailegu zaharrenetan Z bilakatzen da:

Causa> gauza
Sartaginem> zartagin
Saporem> zapore vs sabor
Sortem>zorte
Solum> zoru
Sigillum> zigilu
Sanctum>zaindu
Secalem> zekale, zekare
Sagmarium> zamari
Sabbatum>zapatu

Baina S hitz amaieran baldin badago, afrikatu egiten da: S > TZ

Corpus> gorputz
Fortis> bortitz
Martis (*dies*)> marti(t)zen
Lapis (lapidis gen.)> lapitz

Berdin gertatzen da, txistukaria R, L edo N ondoren badago:

Pensatum> pentsatu
Pulsatum> bultzatu
Personam> pertsona
Sensum> zentzu
Persicam> mertxika
(*in*)*sertatum*> txertatu, xertatu, xartatu

Kontsonante bikoiztuak, sinplatu egiten dira eta ez dute kontsonante bakunen bilakaera jasaten (vLLv>L, ez da R bilakatzen L bakunaren moduan)

Sellam> zela
Castellum>gaztelu
Cattum> katu
Sigillum> zigilu
Ballenam>balea
Cepullam>tipula